

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Andoni Egaña, Uxue Alberdi, Nerea Elustondo eta Mantxi bertsolariak Iñistor jaietan kantari arituko dira; bazkarirako txartelak salgai daude

2014ko irailaren 19a, 410 zenbakia IX. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

INISTOR JAIA IRAILAREN 29AN

Jon Gaztañaga pozarren dago omenaldiarekin eta debutarekin

Real Sociedad taldeko jokalariai elkarrizketa, Gaztazaleak taldearen aurkezpena eta gero.

Jon Gaztañagak aste arrakastatsua izan du. Batetik, Gaztazaleak taldearen aurkezpena izan du, eta bestetik, liga honetan talde zuri-urdinarekin debuta egin du.

Aurreko astean Gaztazaleak taldea aurkezteaz gain, zure debuta izan da ligan. Aste borobila izan duzu.

Jon Gaztañaga. Bai, aste polita izan da. Ederra da zaletuek norberari talde bat egitea, eta gainera, nire lehenengo partida jokatu dut. Taldea 2-0 galzten joatetik berdintzera iritsi zen, eta beraz, pozik nago etxetik kanpo puntu bat lortu dugulako.

Zer irudituz zitzazizun Basteroko ekitaldia?

J.G. Oso polita. Uste nuen Gaztazaleak peñaren aurkezpen txiki bat izango zela, zerbait sinpleagoa, eta nik hitz batzuk egin beharko nituela. Dena den, izugarrizko montajea egin zuten. Oso polita izan zen. Gainera, aretora sartu eta horrenbeste jende ikustea pozgarria izan zen. Familikoak, lagunak, urteetan jarraitu nauen jende asko...

Hunkitzera iritsi zinen. Zein emozio sentitu zenituen zure baitan?



Jon Gaztañaga, atzean Buruntza auzoa duela.

J.G. Sentsazio asko jaso eta sentimendu ezberdinak pilatu zitzaizkidan. Txiki-txikitik hasi eta orain arteko argazkiak jarri zituzten, nire ibilbide osoa kontatu zuten. Azkenean, hortxe mugitu zitzaizkidan barenak. Bideoa ikusten ari nintzen bitartean negarrari eusten egon nintzen, eta eskerrak ematerakoan, dena atera zitzaidan. Azken finean, aurkezpen huts bat espero nuen, baina omenaldi modukoa izan zen, lagunek eginga eta bideo eta argazki ezberdinekin. Eskertzekoa izan zen.

Lesio batetik zatoz. Zer egiten du jokalaria batek lesioa gainditzeko?

*“Ederra da zaletuek norberari talde bat egitea”
Jon Gaztañaga*

J.G. Lesionatuta gaudenean, normalean baino ordu gehiago sartzen ditugu. Goizez eta arratsalde Zubietara joan behar izaten dugu. Fase ezberdinak pasatzen ditugu; hasieran, gauza gutxi egitea daukagunez, masajeak jasotzen ditugu. Nire lesio honetan, behintzat, horrela izan da. Geroago, asteak pasa ahala, geroz eta gauza gehiago egiten joaten gara, pixkanaka, taldearekin elkartu arte. Nire kasuan, dena bost edo sei aste igaro ditut erreku-peratzen, taldera sartu arte.

Zein da zure tokia orain Errealean? Zer espero dute zuek eta zuk zer espero duzu?

J.G. Sansen nengoela, lehen mailan lekutxo bat egitea espero nuen. Orain hori lortuta, ahalik eta gehien jokatzeko espero dut. Horretarako, ordea, badakit lan asko egin beharko dudala, baina horretarako prest nago. Lehengo urtean partida batzuk beraiekin jokatu arren, niretzat etapa berri bat hasi da. Eguneroko entrenamenduak aprobetxatuko ditut ahalik eta gehien hobetzeko eta lekua mantentzeko. Lehen mailara iristea zaila bada, bertan mantentzea are zailagoa da. Horretan saiatuko naiz.

[ANDOAIN, 8. ORRIALDEA]



Asier Martinez garaile

Herri Biraren edizioa izan zen aurreko igande goizean eta Martinez urnietarra helmugaratu zen lehen postuan. Urnietakoan artean Uxue Mayoz izan zen lehena.

[KIROLAK, 11. ORRIALDEA]

BTT martxa igandean

Leitz mendi bizikleta taldeak antolatuta, irteera Leitzaran haraneko paraje ederretan.

[KIROLAK, 11. ORRIALDEA]

In-fusioak ostiral honetan

Egape dantza taldeak Sanmielen atarian ikuskizuna eskainiko du, Muruamendiaren zuzendaritzapean.

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]

ANDOAINGO GUDUA 1837

ORAIN LAMINAK SALGAI

IRAILAREN 8TIK
AURRERA

600mm x 420mm


SALGAI:

ANDOAIN

Stop, Delgado eta Ernaitza liburudendak, Leitzaran markoak (Kale Berria) eta Aiurri (Arantzibia plaza, 4-5)

Sorta osoa: 25 € (4 lamina)
Laminak banaka: 8 €

Erne! Aiurriko harpidedunek eskaintza berezia dute hamaboskariaren bitartez (20 €) Ikus 435. zenbakia, irailaren 19an



Sanmielak - 2014 URNIETA

Irailak 29

VIII. Iñistor jaia Jakutegi plazan



12:30 VIII. Maldan-gorako Iñistorra toka txapelketa, San Juan plazan.

14:30 Herri bazkaria.

Helduentzako menua 25€

Bertan egindako paella, zekor biribilkia (redondoa) barazki eta patata purearekin, esnegainezko ijito besoa (brazo gitanoa) kremaz egindako saltsa eta kanelarekin, kafea eta belar txupittoa, koñaka edo patxarana.

Haurrentzako menua 16€

Makarroiak tomatea eta urdaiazpikoarekin, eskalo-pea txip patatekin eta sandwix izozkia.

Bazkarirako txartelak aurrez erostea ezinbestekoa da.

Azken eguna: irailaren 26a.

Jadanik salgai daude ondorengo lekuetan:

URNIETAN.

- KANTOI tabernan (San Juan plazan)
- AMAILUR tabernan (Idiazabal kalea)

16:30 Bertsolariak

- Andoni Egaña (Zarautz).
- Uxue Alberdi (Elgoibar).
- Nerea Elustondo (Legazpi).
- Iñigo Manzisor, *Mantxi* (Zarautz).
- Gai jartzailea: Amaia Agirre (Villabona).

17:30 "Urnietar Prestu"

2014 izendapena

Edu Muruamendiaraz dantzaria izango da omendua.

19:00 VI. Maria Arizmendi irrintzi lehiaketa, San Juan plazan.

Antolatzaile: Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarra, Manuel Larramendi Kultur Bazkunea.

Laguntzaile: Txanbolin txistulari banda Egape Dantza Taldea. Banaiz Bagara elkarte.

Babesle: Urnietako Udala Aiurri astekaria.

IRAILAREN 11TIK 21ERA ARI DA OSPATZEN MEXIKON

Julen Loitegi Munduko Euskal Pilota Txapelketan

Joan zen irailaren hamaikan eman zitzaion hasiera ofiziala 2014. urteko Munduko Pilota Txapelketari Mexikoko Zinacantepec hirian. Datorren igandera arte luzatuko den lehiaketan, Julen Loitegi

urnietar gaztea ari da parte hartzen, trinketean. Domina eskuratzeko itxaropentsu dago, "mexikarrak izango dira gure areririk gogorrenak, gainontzekoei irabazteko esperantza badugu".

Munduko txapelketa jokatzeko ari den gurekin bertatik Aiurri astekariak kronika jaso du erredakzioan. Horra, txapelketaren hasierari eta Julen Loitegiren parte hartzeari buruzko kontakizuna.

ZINAKANTEPEC

Zinacantepec hiria (168.000 biztanle) Mexikoko hiriburutik gertu dago, 70 kilometrora; Toluca (820.000 biztanle) hiri nagusiagoari urbanistikoki itsatsita. Itsasoko mailatik 2.660 metroko altuerako goilautada eder batean kokaturik dago.

Juan Fernandez izeneko kirol gune zabalean eraiki dituzte pilota jokoaren modalitate ezberdinetarako 6 pilotaleku berri, guztiak eraikin bakarrean, Munduko Txapelketa hau antolatu ahal izateko.

IREKIERA EKITALDIA

Joan zen irailaren 11n egin zen txapelketaren inaugurazio ekitaldi ofiziala. Ekitaldiko buru izan zen Eruviel Ávila, Mexiko estatuko gobernadoreak, ongi etorria eman zien txapelketan parte hartzen hari diren 350 pilotariri. Kirolari hauek, 18 herrialde ordezkatzeko dituzte, Kanada, Estatu Batuak, Mexiko, Kuba, Guatemala, Costa Rica, Argentina, Brasil, Venezuela, Txile, El Salvador, Peru, Nikaragua, Uruguay, Bolibia, Italia, Frantzia eta Espainia. Nahiz eta azken bi herrialde hauetako ia guztiak euskaldunak izan. Ekitaldiaren ondoren, txapelketako lehen partida jokatu zen zesta puntako modalitatean Frantzia eta Mexikoren artean.

Nabarmentzekoa da, ostegunean zehar jokatu behar ziren partidak bertan behera geratu zirela, frontoietako obrak guztiz amaitu gabe zeudelako. Hurrengo egunetan, atontze lanak amaituta, jokatu behar izan dituzte atzeratutako partidak.



Aurreko ostegunean Aiurri harremanetan jarri zen Julen Loitegirekin.

"Mexikarrak izango dira gure areririk gogorrenak"
Julen Loitegi

JULEN LOITEGI

Ostegunean izan zuen Aiurrik Julen Loitegi urnietararekin hitz egiteko aukera. Pozik eta konpetitzeko gogoz zegoen. Pixka bat kezkatuta pilotalekuen obren atzerapenarekin, "hoteletik etorri gara partidak jokatzeko asmoarekin, eta hona iritsitakoan esan digute gaur ezin dugula jokatu". Sasoi onean ikusten du bere burua "egun batzuk pasa ditugu Mexikoko hiriburuan, altuerara egokitzeke, eta ondo sentitzen gara". Dominaren bat lortzeko auke-

rak ikusten ditu, "mexikarrak izango dira gure areririk gogorrenak, gainontzekoei irabazteko esperantza badugu, baina, jokatu arte inoiz ez da jakiten".

EUSKAL GIROA

Munduko Txapelketa honen inguruan nabarmena da euskal giroa. Herrialde askotako pilotarien abizen euskaldun ugari hori dio. Frantzia eta Espainia ordezkatzeko dauden euskaldunak gain, hitz egin ahal izan dugu euskaraz, Estatu Batuetako ordezkari batzuekin, eta Txileko beste hainbatekin. Txiletarrak ikurriña eta guzti agertu dira, eta beraien ordezkariaren batek jokatzeko duen aldiro, pilotalekuan kokatzen dute herrialdeko banderarekin batera.

Loitegi, Garcia eta Iturria; hiru urnietar nazioartean

Udaren amaieran etorkizun handiko hiru kirolari gazte nazioarteko lehiaketa ezberdinetan parte hartzen ari dira. **Julen Loitegi** une honetan Mexikon da trinketean Munduko Txapelketan domina eskuratu nahian.

Nahikari Garcia egun hauetan Lituania da, 19 urte azpiko futbol selekzioarekin. Lehen partidaren gola sartu zuen.

Mikel Iturria txirrindularia, bestalde, 23 urte azpiko Munduko Txapelketan aritzeko hautagaien artean dago.




Xabier Etxeberria eta Mikel Zuloaga txiletarrek euskara ederrean jardun zuten Aiurriekin. Irurriña alboan dute beti.

Xabier Etxeberria eta Mikel Zuloagak euskara ederrean adierazi ziguten, Txilen dagoen hirugarren belaunaldikoak direla, eta Euskal Etxean ikasi dutela hizkuntza. "Gure artean badago hitanoa ere ikasi duenik". Adierazgarria da, baita ere, pilotalekuen atarian jarritako karpan, pantaila handi batean, aurreko urteetako txapelketen irudiak proiektatzen dituztela. ETBko irudiak dira, eta euskara hutsean entzuten dituzte bertaraten diren 18 herrialdeetako pilotari eta zaletuek. Eta bertan izan garenetan, ez dugu hitz txar bat entzun hizkuntza uler-tzen ez dutenen ahotik.

KUBATARRAK

Kubak ordezkari ugari ditu txapelketako modalitate guztietan. Fisikoki ondo prestatutako kirolariak dira, eta animatzeko orduan herrialde zaratsuen. Ostiralean izan ginen Kuba eta Argentinaren arteko trinkete partida ikusten. Kubatar jokalariek ez zuten animo faltarik izan, partidak iraun zuen denbora osoan, karrakekin egindako zarataz gain, unero olatuarena eginez girotu zuten frontoia. Gu, argentinarren ondoan kokatu ginen, hauek isilik, alboan eserita zegoenak hankak gurutzatzerakoan egindako zarata izan zen beraingandik entzundako guztia. Handik segundu



Eruviel Ávila Mexiko estatuko gobernadoreak, ongi etorria eman zien txapelketan arituko diren 350 pilotariel.

pare batera akordatu ginen beraien hiriburuaz, Buenos Aires, nahiz eta, guk arnastutakoak izen hori merezi izan ez.

MEXIKO

Mexikok (120 milioi biztanle) urteko egunik garrantzitsuenaren asteartean (irailak 16) ospatu zuen. Independentziaren 204. urteurrena, hain zuzen ere. Herrialde berezia da Mexiko, eta noski, mexikarrak ere bai. Larunbatean frontoietatik hotelera eramanez gintuen taxista da, diogunaren adibide. Bolantean bi besoekin erdian harturik zeraman egunkari zabaldua, semaforo eta stopetan irakurtzeko. Eta hiri barruko 40ko abiadura mugari men egin gabe, 100 kilometroko abiadura zehatu. "Tranquilo, que esto lo conozco bien". "Aminora la velocidad o te rajo" esateko gogoia bai, baina, eskua poltsikora sartutakoan, han zegoen arma bakarria hoteleko gelaren giltza zen. Irtsitakoan, bizirik jarraitzen genuela ospatzeko, lurra muxukatu genuen.

Zinacantepec utzi aurretik Toluca inguruarekin gozoki tipikoak diren alfeñikeak probatu genituen. Baita ere, laranjarekin egiten duten moskitoa. Hango patxarana. Lau graduazietakoak dituzte, 19, 25, 35 eta 45 graduak. Emakumeentzat, gazteentzat, gizonentzat eta amaginarrentzat, hurrenez hurren.

Ehiza postuak, plater tiraketa eta bola txapelketa

Santa Krutz elkarteak irailean eta urrian antolatu dituen jardueren berri eman du. Hauexek:

Igande honetan plater tiraketa Compak Sporting erara, herri mailako txapelketa Oiartzungo Arkalen.

Irailaren 27an probintzia mailako bola txapelketa herriko bolatokian.

EHIZA POSTUEN ZOZKETA

Irailaren 26an Goibietako ehiza postuen zozketa, hurrengo egunean ehizatzeke.

Urriaren 10ean Otsolepoko ehiza postuen zozketaren hasiera, hurrengo egunean ehizatzeke.

Urriaren 11n Xoxokako ehiza postuen zozketa, egunean bertan ehizatzeke.

Erredakzioaren oharra

Aurreko Aiurri astekariaren azalean 2014ko Sanmielei dagokion albistea hankamotz argitaratu zuen Aiurriko erredakzio taldeak. Albiste horretan zera adierazi zen: "Urnietako jai batzordeak ahabatez erabaki du aurtengo Sanmieletako jaien hasierako txupinazoa botatzeko aukera Pausoka elkartearemattea". Bada, albiste hori ez da guztiz zuzena. Izan ere, uztailaren amaierako bilera jai batzordeak aho batez erabaki zuen txupinazoa Super H eta Pausoka elkarteekin elkarrekin botatzea.

Okerra zena zuzentzeko leerro hauek baliagarri izan daitezela.

UKO EGIN DIO

SUPER H ELKARTEAK

Udalak aste honetan adierazi duenez, Super H taldeak uko egin dio txupinazoa botatzeko aukerari: "Hala eta guztiz ere, Super H ekimeneko partaideek jai batzordeari eskerrak eman nahi dizkiete jaso duten babes eta laguntzagatik".

Gauzak horrela, aurten txupinazoa Pausoka elkarteak bakarrik jaurtiko du.

Jaien aurkezpen ekitaldia

Ostegun honetan arratsaldeko 19:00etan hasita jaietako egitarauaren aurkezpena egingo dute Lekaion.

Aurkezpen ekitaldian hala nahi duten herriko elkarteek hitzorduen berri emateko hartuko dute parte.

Jaietako kartela

2009an bezala, Maitane Bernardo urnietarrak irabazi du aurten ere jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Zortzi lan

aurkeztu dira lehiaketara. Aurkeztutako lan guztiak ikusgai daude aste honetan, Lekaion.

Bidegorria eraikitze lanak



Salesiar ikastetxea eta herri-gunea lotuko dituen bidegorria eraikitzen ari dira, lehendik zegoen espaloia ordez lau metroko zabalera izango duen espazioa sortuz. Bidegorri horren erdi-erdian geratuko lirarteke zutik zeu-

den akaziak eta, gauzak horrela, asteartean espaloia ondoan zeuden zuhaitzak bota egin zituzten. Udal teknikarien asmoa bidegorriaren ondoan zuhaitz berriak landatzea da, lurjabearen oniritzia lortuta.

Astlehenean sarrerak Saroben eskuragarri ipini zituzten

"In-Fusioak" ikuskizuna ostiralean Saroben

Egape dantza taldeko kideek ostiralean, irailak 19, "In-Fusioak", dantza ikuskizuna eskainiko dute Saroben, iluntzeko 20:00etan hasita. Uztailean arrakasta handiz taularatu eta gero, ikusi ez zutenek oraintxe dute aukera. Eta ikusi zutenek ere, bigarren aldiz gozatu ahal izango dute. Denera, 46 dantzari gazte arituko dira, 15 koreografi eskaintzeko. Egape dantza taldeak, urtero bezala, Sanmiel Jaien atarian ikuskizun kutsuko emanaldia eskaintzen du. Osagai garrantzitsuenak dantza eta koreografia berri-tzaileak izango dira.

Irailaren 19koa dantza taldeak hurrengo asteetan eskainiko duen lehen saioa izango da. Sanmieletan hitzordu ezberdinetan arituko baitira.



Edu Muruamendiarek zuzentzen du ikuskizun berritzailea.

Haien eskutik gainera, Galizako folklorea gertutik ezagutzeko aukera izango da. Irailaren 28an eguerdiko 12:30etan

Rois herriko Chorima dantza taldeak lurralde hartako gaita, pandereta eta dantza ikuskizuna eskainiko baitu.

Aurrera Gure Ametsa dantza taldearen deialdia

Ingurutxoa prestatzeko entseguak

Urriaren 5ean, Sanmielen baitan, Ingurutxoa dantzatzeko da San Juan plazan. Aurrera Gure Ametsa taldeko kideek dantza egiteko aukera herritar guztiei eskaini nahi diete, "ikasi eta parte hartu nahi baduzu deitu

edo izena eman gure helbide elektronikoan -674 252 581 / agaurnieta@gmail.com-. Entseguak asteartero izango dira arratsaldeko 18.00etatik 19:00etara Urnietako zaharren egoitzan".

Dantza taldekoek urnietarrei urtean zehar euskal dantzak erakusteko prestutasuna ere agertu diete. Adin mugarik ez dago eta izena emateko epea zabalik dago, datorren irailaren 28ra arte.

Aurrera Gure Ametsa dantza taldearen deialdia

Iñistor jaia bazkarirako txartelak salgai



Andoni Egaña Urnietan izango da.

San Miguel egunean, irailak 29, Iñistor jaia ospatuko da. Egun osoan zehar ekitaldi ugari burutuko da. Bazkaria 14:30etan Jakutegi plazan izango da eta dagoeneko txartelak salgai daude Kantoï eta Amailur tabernetan. Prezioa aurreko urteetako berdina da. 16 euro haurren kasuan, eta 25 helduenentzat. Bazkalosteko bertso saioan hutsik egiten

ez duen Uxue Alberdirekin batera Andoni Egaña, Nerea Elustondo eta Iñigo Mantzisor "Mantxi" arituko dira. Bertso saioa amaitu eta berehala Urnietar Prestu izendape-na iritsiko da. Aurten Edu Muruamendiarek dantzari eta koreografoa omenduko dute.

Segidan plazan irrintzi lehiaketa antolatu dute. Izena emateko epea zabalik dago.

Ingurumen astea Andoainen, irailaren 22tik 27ra

Hamar urtez ingurugiroa zaintzea ardatz hartuta

Andoingo ikasleak eta irakasleak ezinbestekoak izan dira azken hamar urteotan ingurumenaren aldeko ekimenetan. Eta **Andoingo Udalak** eta ingurumen astea kudeatzen duen **Eguzki Ihintza** enpresak ondo gogoan izan zuten hori aurtengo Ingurumen astearen aurkezpenan. Haiek gabe nekez egin zitekeen aurrera. **Ana Carrere** alkateak meritu handia eman die, "kontzientzia hartzen garrantzia handikoak dira, baita diagnostikoak egiteko garaian ere. Goraipatu eta nabarmendu behar da lan hori. Ez da eskolako lan hutsa, Udalean kontuan hartzen dugu haiek egindako lana".

Ingurumenaren aldeko apustua barneratzeko orduan, Andoainen nagusiki bi ekimen burutu dira 2004-2005. ikasturte-tik hona: **Eskola Agenda 21** eta **Zuhaitzaren eguna**.

Ikastetxean bertan tailerrak, lezioak eta ariketak landu dituzte Eskola Agenda 21 ekimenaren baitan. Urteotan hizpide hartu izan dituzte ura, klima aldaketa, energia edota bioaniztasuna. Hori guztia helburu nagusi bat eskuratzeko: "Herriaren egoera hobetzeaz gain, ingurumenarekin arduratsuagoa



Ana Carrere alkatea eta Xabier Agirre Eguzki Ihintza enpresako kidea.

izango den gizarte parte-hartzaile bat eraikitzea".

Zuhaitzaren eguna belaunaldi guztientzat gogoan izaten den ekimena da. Eta azken hamar urteotan ehunka zuhaitz landu dituzte Idiazabal aldeko parajeetan edota Otietan. Besteak beste, haritza, pagoa, urkia, lizarra, gereziandoa eta elorria landatu dituzte.

ERAKUSKETA ETA FILMA DATORREN ASTEAN ZEHAR

Hamar urteotan egindako lana erakusketa batean laburbiltzen saiatu dira. Datorren aste oso-

Irailaren 22an eta 23an Tipi tapa hiri barruko bus zerbitzua dohainik izango da herritar guztientzat

an Basteron ikusgai izango da, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Larunbatean, irailak 27, goizeko 10:30etatik 13:30etara ere zabalik izango da.

Erakusketa martxan dagoela, irailaren 25ean, "**Baso galduak**" dokumentala eskainiko dute. Dokumentalal, egileek diotenez, "gure inguruko basoek jasan duten eraldaketa kontatzen du, aro neolitikotik XXI. menderarte. Dokumental honek, tokian tokiko basogintzaz zenbait hausnarketa sustatu nahi du".

MUGIKORTASUN PLANAREN GARAPENA

Andoingo alkateak agerraldian Mugikortasun planaren berri eman zuen. 2012an martxan jarri zen, urte ezberdinetan garatzeko. Bi helburu nagusi zituen: Oinezkoen joan-etorria sustatzea eta garraio publikoaren erabilera areagotzea.

"Eskoziar herriari agurrik beroena" adierazpena

Adierazpena EH Bildu, EAJ-PNV

"Urteetako ibilbidearen ondoren, Eskoziar herriak bere etorkizuna libreki erabakiko du datorren irailaren 18an. Eskozian, bertako herritarrek hartuko dute hitza; eta herritarrak izango dira, Eskoziak zer nolako antolaketa politikoa izan behar duen erabakiko dutenak.

Irailaren 18an Eskozian egingo den erreferendum-a, herrien askapen prozesuen ibilbidean beste urrats garrantzitsu bat izango da. Eskoziarrak, dagoeneko beren herriaren etorkizunaren jabe dira, eta laster batean, Katalunia, Euskal Herria eta munduko hainbat nazio ere eskubide hori egikaritu dugu. Herrien askatasunaren aldeko atzerazineko prozesu bat abian dagoelako mundu mailan.

Egun historiko honen aurrean, honako adierazpen hau egin nahi dugu instituzio honetatik:

1. Eskoziako nazioa agurtzen dugu, eta bere biztanleak zoriondu. Hauek herri

bezala duten eskubidean oinarrituz, beren etorkizuna erreferendum bitartez modu aske eta demokratiko batean zehazten dute eta.

2. Alderdi "unionistek" adierazi duten jarrera demokratikoa ere nabarmendu nahi dugu, naturaltasun osoz onartu baitute eskoziarren borondatean oinarrituko dela Eskoziaren etorkizuna.
3. Ulertzen dugu adibide eskoziarra sakontze demokratikoaren ariketa eredarria dela, non gizartearen nahia eta herrien erabakitze eskubidea lehenesten diren, Estatuaren lurralde osotasun printzipioen gainetik.
4. Munduko herri askeen historiako geratuko den data izanik, eta Eskoziar herritarrak beraie etorkizuna libreki erabakitzen ariko diren egunean bertan, gure babesa adierazteko, Eskoziako bandera jarriko dugu instituzioaren fatxada nagusian, ikusgarri eta lehenetsuneko izango den tokian".

Oinezkoen joan-etorria sustatzeko haurrak eskolara oinez joateko programak martxan jarri dituzte. 2013an abiatu zen programa hori.

Horri lotuta, joan-etorria errazteko irisgarritasuna hobetzeko neurriak hartzea erabaki dute. Lehen fasean, adibidez, hobekuntza lanak egin dira: Sorabillako pasabidea, Txistokiko zebraidea, eta Kaletxiki edota Kaleberrian aurki zitezkeen oztopoak desagertaraztea, etab.

Bigarren fasea 2015ean burutu nahiko lukete, zeinetan Karrikatik Goikoplazaraino doazen kaleetako oztopoak desagertarazi nahi dituzten.

Mugikortasun planaren bigarren helburua garraio publiko hobetzea zen, eta hori nagusiki

hiri barruko bus zerbitzuaren hobekuntzarekin etorri da. Ordutegiak eta geltokien kokapenak doitu dituzte denbora honetan. Alkateak herri barruko bus zerbitzuaren garraioa nabarmen igo dela adierazteko datuak erabili zituen: "Hiribusak 2011n 9.500 erabiltzaile zituen. Azken ikasturtean, aldiz, 16.463 bidaiari. Beraz, datua oso positiboa da".

ETORKIZUN HURBILEAN, 30 KILOMETRO ORDUKO ABIADURA

Mugikortasun plana bere osotasunean garatzeko zeregin bakarra geratzen da. Herri barruko abiadura 30 kilometro ordura jaitea. Herri osoan ezarriko litzateke, eta horri helduko diote laster.



Irailaren 22an eta 23an Tipi tapa hiri barruko bus zerbitzua dohainik izango da herritar guztientzat.

MIZPIRADI

SAGARDOTEGIA - ANDOAIN



Leizotz auzoa z/g. 20140 - ANDOAIN - 943 593 954 - 679 382 546
mizpiradisagardotegia@gmail.com - www.mizpiradisagardotegia.com

M E N U B E R E Z I A K

Eguneko menua:
11€

Oilasko menua:
10€

Hirugiharra. Oilasko erreta + entsalada + patatak. Izoikia eta txotx.

Txerri menua:
12€

Hirugiharra. Txerri saiheskia + entsalada + patatak. Izoikia eta txotx.

Txekor menua:
15€

Bakailao entsalada epela. Txekor saiheskia + patatak. Izoikia eta txotx.

Baserriko menua:
17€

Entsalada tomatea edo letxuga. Baserriko oilasko erdia + patatak. Mamia eta txotx.

Txitxarro menua:
18€

Entsalada mistoa. Txitxarroa erreta. Mamia edo izozkia eta txotx.

Sagardotegiko menu txikia:
20€

Bakailao tortilla. Txuleta + letxuga. Teilak eta zigarratxoak eta txotx.

Sagardotegikoa:
25€

Bakailao tortilla. Bakailao frijitua piperrekin. Txuleta. Gazta, menbrilloa, intxaurrek eta txotx.

Arkume menua:
30€

Onddo nahaskia. Arkumea letxugarekin. Postrea eta txotx. [Enkarguz, lagun artean eta laneko bazkariak egiteko aproposa]



Ikastaro berriak Andoainen jabetze eskolaren eskutik

Feminismoarekin kontaktuan jartzeko bi ikastaro antolatatu ditu Gizarte zerbitzuen lantsailak, Andoainen.

URRIKO IKASTAROA

Feminismo kontzeptuari beldurra kentzeko eta jabetze maila handitzeko, urriko asteartean ikastaroa izango da Urigainen. Feminismoa gizarte mugimendu nahiz mugimendu politiko bezala hartuko da eta bere lorpen eta zailtasunak aztertuko dira. Teoria feministak eta historian zehar izandako ibilbidea azaltzeaz gain, beste hainbat gai ere jorratuko dira; sexua eta generoa, emakumeen aurkako indarkeria, abortua, prostituzioa, amatasuna...

Beraz, feminismoaren ekarpenekin eta egungo gizartearen eztabaida sortzen ari den gaiekin harremanetan jarri nahi duten adin guztietako emakumei zuzenduta dago ikastaroa. Miriam Herbón izango da ikastaroa gidatuko duena, soziologian lizentziatua eta genero indarkeria, sexologia eta hazkuntza pertsonalean aditua.

Ikastaroa gaztelaniaz izango da, urriaren 7, 14, 21 eta 28an arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara.

Matrikula: 10 euro.

Informazioa: 943 304 343.

Izena emateko epea: Irailak 30.

AZAROKO IKASTAROA

Zer egin indarkeria eta eraso sexisten aurrean?

Irakaslea: Silvia Arevalo.

Hizkuntza: euskara.

Datak: Azaroak 4, 11, 18, 28 eta abenduak 5 eta 12.

Ordutegia: 18:30-20:00.

Non: Urigain.

Matrikula: 10 euro, Ataria.

Izen-ematea: Urriaren 31 arte.

2015EKO IRAILAREN 14AN, HERRIAREN SORRERAREN 400. URTEURRENEKO EKITALDIEN BAITAN

Andoaingo Gudua berriro antzeztuko dute

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak prentsa ohar bidez Andoaingo Guduaren bigarren antzezpena egingo dela iragarri du.

Antzezpena Andoaingo sorreraren 400. urteurreneko ekitaldien artean kokatu behar da. Dagoeneko pres-taketa lanetan hasi dira.

Datorren urteko *Andoaingo Gudua* antolatze lanak hil honetan hasiko dira, datorren egunetan jostunak elkartuko baitira bere lana antolatu eta laguntzaile berrien deialdia egiteko. Ondoren antolatuko dira beste lan-batzordeak, iaz parte hartu zuen laguntzaile ugari lanean jarri nahi dutenak. Lanen zerrenda zein den argi daukate Bazkunean, "lehenengo lana, datorren urteko gidoia eta egitaraua finkatzea izango da, eta horrek zein azpiegitura eskatuko duen erabakitzea. Urriaren zehar karlisten eta liberalen bataloiak antolatze deialdia egingo da eta musika bandak osatzeko modurik dagoen aztertuko da. Azaroan, dramatizazio lana egin nahi dutenentzat egingo da deialdia, iaz egin zena baino gehixeago txertatu nahi baita datorren urtean". Datorren urtean 178 urte beteko dira Andoainen karlista eta liberalen arteko gudua gertatu zenetik, 600 lagun inguru hilik utzi zuena Andoaingo kaleetan eta aldirietan. Bazkunaren ustean "hiribilduaren sorreratik 400 urte beteko diren urtean oso aintzakotzat hartu beharreko gertakari historikoa" da.

Ekitaldia behar bezala egiteko, ordea, herrikideen laguntza behar beharrezkoa izango da.



Datorren urtean ekitaldia behar bezala egiteko, ordea, herrikideen laguntza behar beharrezkoa izango da.

Urriaren 1ean iaz arrakasta handiz egin zen antzezpeneren bideoa aurkeztuko dute Basteron

Antolakuntza lan horretan parte hartu nahi dutenek, alor batean zein bestean, Bazkune-ko ordezkariekin jar litezke zuzenean harremanetan, edota 656 782 521 telefono zenbakira deituta.

GUDUA BURUTZEKO FINANTZABIDEAK

Bazkunak dirubilketa zabalago bati ekin nahi dio 2015eko Andoaingo Gudua antolatu ahal izateko. Lehenik eta behin gudua ilustratzeko Juan Luis Landa marrazkilariren irudiak salgai jarri ditu.

Iazko guduaren bideoaren kopia eta kamisetak ere salgai jarriko dituzte, beti ere datorren urteko egitasmoa finantzatzeko.

BIDEO EMANKIZUNA BASTERON

Urriaren 1ean, Basteron, 2013ko urriaren 19an arrakasta handiz egin zen saioaren bideoa aurkeztuko dute, aurkezpeneren ondoren ere erosi ahal izango dena, oroigarri gisa.

Horiek izango dira lehenengo ekintzak dirua biltzeko, dirulaguntzen bidea oso zail aurreikusten baitute, Andoaingo Udaleko Kultura lantsailatik ematen ari direna izan ezik.

Guduaren irudien laminak salgai

Larramendi Bazkunak salgai jarri ditu *Andoaingo Guduaren* gertakizunak agertzeko **Juan Luis Landa** marrazkilariak egingo lau irudien laminak, tamaina handian. Aste honetatik aurrera eskuragarri daude Andoaingo Stop, Ernaitza eta Delgado liburudendetan, Leitzaran Markoak dendan eta Arantzibia plazako Aiurriren egoitzan. Lau marrazki dira, 60 x 42 cm-koak, 1837ko irailaren 14an Andoainen izan zi-

ren borroka latzak azaltzen dituztenak. Lamina bakoitzaren salneurria 8 €-koa da, baina lauak batera erosten dituenak 25 € baino ez du ordainduko.

Lehenengo marrazkiak O'Donell jeneralaren agindupeko liberalen eta Uranga jeneralaren agindupeko karlistek Gurutze Santuaren elizatzoko zubian izan zuten talka azaltzen du, karlistek Zumeatik gogor erasotu ondoren, garrantzi handikoa izan zena

hauek gudu hura irabaz zezaten Andoainen.

Bigarren marrazkian, Tours-eko San Martin elizan babes hartu zuten soldadu irlandar eta eskoziarrak Ez da kuartelik su ematen dubenentzat!!! oiher artean nola aterarazi eta hil zituzten azaltzen da.

Hirugarren marrazkian, O'Donell jeneralak borrokan galdutako bi adarrekoa edo txanoa Goikoplazan isuritako odolak Kaletxikin behera arrastaka

nola daraman ikus liteke, ahoz aho hori baita belaunez belaur iritsitako kondaira.

Laugarren marrazkian, berri, karlisten zalditeriaren eta Hernanin zeuden ingelesaren arteko talka ikus liteke, Idiazabal eta Aranaztegi base-riren inguruan gertatu zena. Zalditeria ingelesa ihesean zihozaren liberalak heriotza ziurretik babesteko egin zuten eraso, baita asko salbatzea lortu ere.

IRAILAREN 27AN ANDOAINGO GAZTETXEAN

Musikazuzenean atariaren aldeko kontzertua

Irailaren 27an Musikazuzenean atari digitalaren aldeko festa egingo dute Andoaingo gaztetxean. Musika gaua izango da, zehazki. Gaueko 22:00etatik aurre-

ra Willis Drummond, Borrokan eta Tutan Come On arituko dira oholtza gainean. Jaia borobiltzeko, Mikel Sxtysxrs ariko da DJ lanetan.

Musikazuzenean atari digitala euskarazko musika kazetaritzan erreferentziatzko gunea da, bereziki agenda doitu dutelako. Horrez gain, talde askoren birak edota grabazioak gertutik jarraitzeko atalak sortu dituzte. Webgune horren sustatzaile nagusia Koldo Otamendi andoaindarra da eta webgunearen bulegoa Andoain bertan dago. Aldizkari digitalari hauspoa ematen jarraitzeko, ospakizun-kontzertua antolatu dute iraileko azken larunbaterako.

BORROKAN

Lan berria zuzenean aurkezteko asmoa du Borrokan taldeak. "Hitzez ulertu ezin dena omendu nahi nuke. Oraintxe" diskoa 2007an kaleratu zuten, eta oraingoan, "Zuak" izenburua duen lana aurkeztuko dute. Berako (Nafarroa) Mik estudioan grabatua eta nahastua, ohi bezala boskotean eraman-go dute estudioko lana taula gainera.

Borrokanen musika Post-Rockaren eremuan kokatu izan da nagusiki, nahiz eta taldeak etiketen aurrean dibertsitatearen aldeko apustua egin ohi duen. Orokorrean emozioak eta intentsitatea nagusitzen dira haien kantuetan, zarata,



soinu, erritmo, kolpe, isiltasun eta guztien arteko konposizio korapilatuekin jolastuz.

90eko hamarkadan taldea sortu zutenetik, hiru lan luze grabatu dituzte eta hainbat bildumatan parte hartu dute. Tal-

deak artoartian musika ttikien katalogoan parte hartzen du.

WILLIS DRUMMOND

Willis Drummond sekulan gelditzen ez den talde hauetakoa da. 2007an 'Anthology' (auto-

prod) haien lehen diska kalera-tu zutenetik, etengabe mugitu dira kontzertuak ematen Iparraldetik mundura. Zazpi urtez hirurehun kontzertu baino gehiago emanez festibaletan, gaztetxeetan bezala, Euskal Herrian, baita Belgikan, Frantzian eta estatu mailan ere.

2012ko azaroaren 19an kaleratu zen Willis Drummond taldearen 4. albuma: 'A ala B' (BIDEhUTS, 2012) Diskak hamar kantu biltzen ditu, Karlos Osinagak eta Iñigo Irazokik grabatuak Tolosako Bonbereanean, eta Burke Reid-ek nahasiak Torontoko Bronco estudioan. CDaren edizioaz gain, LP formatuan ere argitaratua da, eta bertsio digitala ere deskarga daiteke bandcamp plataformaren bidez.

Egun boskote bezala taularitzen da banda, Joseba Baleztena aritzen delarik gitarra jotzen taldearen aro berri honetan.

TUTAN COME ON

Musikari arituek osaturiko banda berria da Tutan Come On. Oscar Kanda (Trumbo, Vicepresidentes, Neubat) eta Salterain (Bronze) bikote formatuan arituko dira, eta musikalari stoner rock giroetara bideratzen dituzte euren kantuak.

www.musikazuzenean.com



"Gazteok hartu hitza!" parte hartze prozesua

Iazko urte hasieran auzoz auzo zabaldu zen "Parte hartze hariak lotuz" egitasmoaren bidetik, udazken honetan Andoaingo Udalak 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean parte hartze prozesua abiarazi nahi du. Laster, adin tarte horretako herrikideek gutun bana jasoko dute. Bertan egitasmoaren berri ematearekin batera, hitzordu ezberdinen egutegia jasoko dute. Helburu nagusia honakoa da: "epe laburrean Udalak bultzatu beharko lituzkeen proiektu, ekimen edo egitasmoen inguruan eztabaidatzea".

Gazteei hitza eman nahi diete eta, zehazki, galdera hauek abiapuntu bezala izango dituzte: "Zein da zure proposamena? Ze behar edo helbururi erantzuten dio? Zer hobetuko litzateke proposamen honekin? Nor (nortzuk) izango da proposamen honen onuradun?". Datozen asteetan ikastetxeetan eta Gaztetxean buzoi bana jarriko dute galdera horien erantzunak uzteko. Bada beste bidea ere, internet sarea erabiltzea. Andoain.org webgunean sartuta edota edo andoain@andoain.org e-posta erabiltza.

HIRU FASE EZBERDIN

Parte hartze prozesuak hiru fase izango ditu. Lehen fasean egungo egoeraz jardungo dute hiru bilera ezberdinetan, urriaren 8tik 15era. Bigarren fasean proposamen zehatzak mahai gainean jarri nahi dituzte. Hori azaroaren 5eko bilkuran egin nahiko lukete. Gazteen arteko parte hartze prozesua azaroaren 19an amaituko litzateke, azken ondorioak eta erabakiak adierazteko. Udalak herriko ahalik eta gazte gehienekin partaidetza izatea lortu nahiko luke.

Katramila taldearen deialdia



Ikasturte berriarekin asmo handi bati helduko diote: Andoain herria sortu zeneko 400. urteurrenari buruzko herri antzerkia antolatzea.

MATRIKULAZIO EPEA

Irailaren 23ra bitartean Katramilan izena emateko epea izango da. Egunero, arratsaldeko 18:00etatik 19:30etara Bastero Kulturgunean. Parte hartzeko deia luzatu du elkarteak, "animatu! Ederki pasako duzu!".



FUTBOLA

Jon Gaztañaga: “Andoainen nirekiko ilusio hori nabari dut”

Denboraldia hasi aurretik lesio batek lehen mailako taldeko eguneroko martxatik aldendu zuen. Lauzpabost astez lan isila egin du erabat osatu arte.

Aurreko astean deialdian sartu eta Celtaren aurka denboraldiko lehen minutuak jokatzeko aukera izan zuen. Haren aldeko errealzaleen taldea aurkeztu zen aste berean, hain zuzen.

Entrenatzaileak ere garrantzia izaten du, zure kasuan ere bai.

J.G. Bera izan da nigan konfiantza izan duena eta alde horretatik, nik behintzat, esker-rak eman behar dizkiot.

Kritika latzak jasotzen dituzte batzuetan jokalariek. Zer pasatzen zaizu horrelakoetan burutik?

J.G. Kritikak daudenean entzun egingo ditut, besterik ez dago. Horrelakoak eramaten jakin beharko dut. Kritika txarrak daudenean bezala, laudorio eta goraipamenak ere pixka bat erlatibizatzen jakin beharra dago. Txarrerako eta onerako esaten dutena hartu, baina, esan bezala, erlatibizatu egin behar da.

Aspaldi honetan ez zegoen andoaindarrik Errealean. Poza sentitzen duzu ala ardura?

J.G. Bai, azken finean, herrian ilusioa ikusten da. Urte asko dira andoaindar batek lehen mailan jokatu ez duela eta jendea pozik dagoenez, ilusioa egiten dit. Gainera, herritarrek ere animoak ematen dizkirate. Beraz, ardura handirik ez dut sentitzen; izan ere, ni beti gauzak ahalik eta ondoen egiten saiatzen naiz eta orain ere horrela egingo dut. Baina ardura berezirik ez dut sentitzen.

Sagardotegian laguntzea ere tokatuko zitzaizun. Orain astirik izaten al duzu horretarako?

J.G. Azken urte hauetan ez naiz asko ibili. Joaten naiz jate-xera, baina laguntzera oso gutxi. Gazteagoa nintzenean joaten nintzen, asteburuetan jende asko zegoenean, baina orain denbora asko eskaintzen diot futbolari. Lehen mailara iristen zarenean, ia denbora gehiena futboleko igarotzen dugu. Goizetan eta arratsalde batzuetan entrenamenduak izaten ditugu.

Zein izaten da zure egunerokoa?

J.G. Normalean goizetan entre-



Jon Gaztañagarentzat aste borobila izan zen aurrekoa.

natzen dugu. Gosalduta bertan egiten dugu eta bazkalduta ere han egitera behartuta gaude. Bazkalduta ondoren, eguerdiko ordubiak edo hirurak aldera li-

bre izaten dugu, arratsaldean entrenamendurik ez badago, behintzat. Arratsaldean etxera bueltatzen gara. Orain, Zubietan bertan arratsaldean en-

“Zelaian jokatzeko bada, entrenatzaile izatea ere gustatuko litzaidake”

trenatzaile izateko moduloa egiten ari naiz. Duela bi urte lehenengo eta bigarren mailak egin nituen, eta aurtur hirugarren maila amaitzeko asmotan nabil.

Etorkizunean, beraz, zure burua futboleko ikusten duzu. Jolasen ez bada, entrenatzaile moduan?

J.G. Bai, izan ere, futbola izugarri gustatzen zait. Hemendik urte batzuetara ez dakit non egongo naizen, baina, behintzat, kurtso horiek egin eta titulua atera nahi dut. Zelaian jokatzeko bada, entrenatzaile izatea ere gustatuko litzaidake. Ikusiko da hemendik urte batzuetara jokatzeko nabilen, edo entrenatzen...

Zure egunerokoa asko aldatu al da Sansen egon edo Errealean egon?

J.G. Ez, eguneroko antzekoa izango dut. Sansen ere goizetan entrenatzen genuen, ordu kopuru antzekoa. Orain, ordea, Espainia mailan jokatu dudanez, bidaia gehiago izango ditut. Horretatik, astean zehar nire egitekoa antzekoa izan arren, asteburuak aldatuko zaizkit. Orain lehen mailan, primerako zelaiak ezagutuko ditut. Gustura jokatu dut tamaina handiko eta jende lepo betetako zelaietan.

Zortez, zuk egiten dituzun bidaia batzuk ere egingo dituzte zure Gaztazaleak taldekoek.

J.G. Bai, hori poztekoa da. Ilusioa egiten du nire inguruko jendeak jarraitzen nauela sentitzeak. Kanpora jokatzera joan eta guri animatzen ari direla ikusteak animatu egiten du. Oso polita da hori.

Juan Mari Gaztañaga, Jon Gaztañagaren aita

“Etxekoentzat oso berezia izan zen”



Juan Mari sagardogilea da, herrian aski ezaguna. Orain, ordea, inoiz baino gehiago gozaten du futbolaz. Semeak izan duen ibilbide oparoa ikusita, horren aurrean aita nola sentitzen den jakin nahi izan du Aiurrik.

Etxekoak Gaztazaleak taldearen aurkezpenean izan zineten. Zer iruditu zitzaizun ekitaldia?

Oso polita izan zen. Txikitatik

izan dituen lagunak parte hartu zuten, eskola mailakoak, pilotakoak, futbolekoak... Kanpotik ere etorri ziren eta oso ederra izan zen. Bera, gainera, hunkitu egin zen eta hori denoi iritsi zitzaigun. Nik, behintzat, ez nuen txikitatik negarrez ikusi eta hori ikustea polita izan zen.

Bera negarrez ikusita, familikoak ere hunkitu egingo zineten, ezta?

Dudarik gabe. Nik aurretik pentsatzen nuen hunkitu egin zitekeela, baina momentuan malkoei eusten egon nintzen; emaztea eta aita ondoan nituen eta badaezpada ez nien begiratu, bestela ni ere hasiko nintzatekeelako. Denontzat oso berezia izan zen.

Zer iruditzen zaizu Gaztazaleak taldea sortzea?

Pozgarria da. Ez Jonengatik soilik, izan ere, Andoainen bazen garaia lehen mailako futbolari bat egotekoa. Zortez, nire semea tokatu zaio, baina nirea ez bazen ere, taldearen alde egongo nintzateke.

Nola bizi duzu zure semea lehenengo mailan egotea?

Beti errealzalea izan naiz, eta orain semea bertan egonda, are gehiago. Jatetxean lan asko egiten dugu, baina denbora libre dudanean, futbolera jotzen dut. Nire dibertsioaren zati garrantzitsua osatzen du.

Futbolzalea zara, baina semea ikustean sufritzen duen horietako alzarara?

Lesioren bat egoten denean sufritzen dugu, baina orain arte dena ondo joan zaio. Ez dugu frustaziorik izan eta pozik gaude bere lanarekin. Seme gazteago bat ere badugu, eta bere mailan ere ederki dabil. Ez dugu kexatzekorik.

Orain arte ezaguna izan zara sagardotegiagatik. Hemendik aurrera, agian, Jonen aita izateagatik?

Hori soka bat da, ondo eramaten jakin behar dena.

[Barre egiten du eta ironia erabiliz hizketan hasi da] Neuk ere adi ibili beharko dut... Aurrerantzean egingo dut parrandara atera eta taberna itxitakoan plazara joan. Txintxo ibili beharko dut, orduan.

FUTBOLA

Gaztazaleak peñaren aurkezpena

Gaztazaleak peña aurkeztu zuten irailaren 10ean, Basteron. Taldearen aurkezpen ekitaldia izateaz gain, Jon Gaztañagari eskainitako omenaldia ere izan zen. Izan ere, bere ibilaldi oparoa kontatzeaz

gain, hitz eta irudi ederrak eskaini zizkioten. Oso hunkigarria izan zen, Gaztañaga hunkitzeraino. Izan ere, eskerrak ematerako unean malko artean lehertu zen.

Kusleen txalo zaparradarekin batera hunkitu egin zen. "Eskerrak eman nahi dizkiet urte guztian zehar nire ondoren zaudetenoi. Zuen laguntza gabe dena zailagoa izango litzateke. Eskerrak asko momentu txarretan hor egoteagatik". Eskerrak eman zizkien ekitaldia prestatu eta bertara gerturatu ziren guztiei ere.

Mahaiaren bueltan egon ziren Joseba Zaldua eta Jon Ansoategi Realeko jokalariek, Urko Arana Gaztazaleak taldeko lehendakaria, Ion Beloki aurkezlea eta Jon Gaztañaga bera. Protagonistaren biografia kontatzea nahikoa ez eta txikitatik gaur arteko argazkiak erakutsi zituzten. Gainera, bere inguruko hitz hunkigarriak ere jaso zituen. Txikitatik lagun dituenak hartu zuten hitza lehenengo: "Elkarrekin hasi ginen ikastolan futbolekoan, eta hi iritsi haiz goreneraino. Asko pozten gatik eta horixe, aupa Gazta! Zorte on!".

Ondoren, bere taldekide izandakoek bideoen bidez mezu



Gaztazaleak taldeko kideak Errealeko jokalariekin batera.

hunkigarriak helarazi zizkioten. **Josu Ozkoidik** zortetik onena opa eta gogor lan egiteko esan zion: "Etap berria da, gogor lan egin beharko duzu. Exijentea izan zure buruarekin. Eta badakizu edozertarako non nagoen". Jonnek ametsa egi bihurtu du eta

Mikel Orbegozok adierazi bezala, "zure buruarengan konfiantza izan eta, zugar sinistu duten bezala, zuk ere zure buruarengan sinestu. Nire babesa izango duzu beti", animatu zuen Orbegozok. **Joseba Beitiak** lehen mailara salto egitea merezi duela eta

etorkizunean zorte ona izateko desiatu zion. Amaitzeko, **Jabi Rosek** hitz egin zuen: "Niretzat plazerra izan da orain arteko zurekin konpartitzea, beti bezala lanean jarraitu. Merez duzu".

Dudarik ez dago Jonnek ibilbide oparoa egin duela orain

Irailaren 30era bitarte Gaztazaleak taldeko bazkide egiteko aukera izango da

arte futbol munduan. Horregatik, bere gertukoek Gaztazaleak peña sortu dute. **Urko Arana** taldeko lehendakariak adierazi zuenez, eliteko kirolak behar duelako eta Jonnek merezi delako sortu dute taldea: "Hemen gauden guztiok arrazoi batek batzen gaitu, Joni diogun miresmenak. Talde hau osatzen dugunon partez esan dezaket, bizitzako hainbat momentu berarekin elkarbizitzea ohore bat izan dela, eredu baita zelai barruan eta zelai kanpoan, batez ere."

BAZKIDE EGITEKO AUKERA

Irailaren 30era bitarte bazkide egiteko aukera izango da. Urtean 40 euro ordainduta, bazkide txartelei esker, gutxienez bi aldiz Anoetara joateko aukera egongo da. Horrez gain, partidak ikusteko bidaietan beherapena izango dute eta denboraldi amaieran Jon Gaztañagarekin egingo den bazkaria doan. Lanbroa, Ganbara, Aker, Olajauna, Gaztañaga, Txalaka, Txindoki eta Ondarreta tabernetan edo emalez helbidera idatzita eman daiteke izena.

gaztazaleak@gmail.com

Urko Arana, Gaztazaleak taldeko lehendakaria

“Gaztazaleak taldea herrikideei irekita dago”



Urko Arana Jon Gaztañagaren laguna da, gertutik bizi izan du lehen mailarako igoera eta orain bera da Gaztazaleak taldearen lehendakaria.

Oso gertutik bizi izan duzu lehen mailarako jauzi hau.

Bai, Jon nire lagun oso ona da eta aspalditik bazkidea naizenez, bere partidua ikustera joaten naiz. Sanseren partidua asko ikusi ditut, eta gertutik

bizi izan dut Jon lehenengo mailara pasatzea. Lagun bezala, oso pozgarria da niretzat ere. Batez ere, Getaferen aurka debutatu zueneko hura gogoratzen dut. Izugarritzako poza hartu nuen, beti Zubietan ikustetik Anoetan ikustera pasa baikara. Denbora asko itxarondako zerbait da eta lagun artean sekulako poza hartu dugu.

Ondoren, Gaztazaleak taldea sortu duzue. Nola izan zen sortze prozesua?

Andoni Alvarezek bere osaba batekin izan zuen ideia. Hala, denboraldia amaitzerakoan, lehenengo ekipoko dortsala izango zuenez, serio hastea pentsatu genuen. Beti esaten genion peña bat egingo genio-

la; esan eta egin. Udaran zehar egin ditugu bilerak eta orain hasi gara martxa hartzen.

Zeintzuk zabilzate lantaldean? Zertan ari zarete orain?

Andoni Alvarez, futbol munduan ibilitako Iker Etxebeste, Iñaki Bengoetxea, nire gertuko laguna, eta Beñat Erkizia, besteak beste. Orain bazkideak lortu nahi ditugu eta, horretarako, tabernetan kaxa batzuk utzi ditugu, nahi duenak izena eman dezan. Jon herrian ondo ikusita dagoen mutila da, oso jatorra, eta pentsatzen dugu herritarrek animatuko direla.

Aurrera begira zein dira zuen asmoak?

Urtean zehar Jonen partidak ikustera joango gara, eta baz-

kide txartelarekin, hori erraztu nahi diogu jendeari. Bestalde, denboraldi amaieran Jonekin bazkari bat egingo dugu eta horrez gain, bidaia batzuk egitea ere pentsatzen dugu. Aurtengo oso urrutira, baina abenduan Vila-realera joatea pentsatu dugu.

Gaztazaleak aurkezteko ekitaldia egin zenuen. Jon hunkitu ere egin zen. Nola bizitu zenuen hori?

Ez da erraz negar egiten duen mutila, baina ekitaldia oso hunkigarria izan zen. Familiari esker bere txikitako argazkiak lortu genituen, lagun hitzak ere jarri genizkion eta gertuko lagunek egin genionez, azkenean, emozionatu egin zen. Oso polita izan zen.



KIROL ALBISTEAK

Denek bat eginda, denboraldiari hasiera emateko modurik onena

Futbol denboraldiaren atarian, urtero bezala, Urnietako Kirol Elkarteko saila aurkeztu zuten joan den larunbatean. Jokalariei garrantzia emanez, musikaz eta dantzaz alaituriko ekitaldia eskaini

zuten, futbol eskolako gaztetxoetatik hasi eta erregional mailara artekoko jokalaria aurkezteko. Denek bat eginda, denboraldiari hasiera emateko modurik onena da.

Pablo de Torres ekitaldiaren antolatzaileak dienez, taldeak aurkeztu eta bakoitzaren argazkia ateratzeko unea da: “Zelaira irteko unea da, denboraldiari hasiera emateko garaia. Hemendik aurrera jokari guztiak Gipuzkoa osoan zehar ibiliko dira”. Aurten, Urnietako Kirol Elkartean 10 talde izango dira; horietatik 7 gizonzkoenak eta 3 emakumeenak. Orotara, 247 gazte arituko dira zelaietan, 138 gizonzko eta 44 emakumezko.

Gainontzeko 65 gaztetxoak futbol eskolan arituko dira. Aurtengoa bosgarren urtea da eta antolatzaileak pozarren daude, geroz eta mutil-neska gehiago animatzen direlako. “Pentsatu behar dugu hemendik aterako direla hurrengo urterako jokalaria, Urnietako elastikoa defendatuko dutenak. Dena den, adin hauetan garrantzitsuena futbolaz gozatzea eta ondo pasatzea da; horretarako izaten da futbol eskola”, azaldu zuen **Txema Legarreta** presidentek.

Guztiak parte hartu zuten aurkezpen ekitaldian, eta denen argazki orokorra ateratzeaz gain, taldeak banan bana izan ziren futbol zelai erdian argazkia ateratzeko. Gainera, jokari bakoitzaren izen-abizenak esan zituzten, taldea bere osotasunean ezagutzeko. Jokalariez



Jende ugari bildu zen udako arratsalde eguzkitsuan, Urnietako futbol zelaiaren inguruan.

gain, bertan izan ziren entrenatzaileak, antolatzaileak, gurasaak, lagunak, herritarrak... Beraz, jende ugari bildu zen udako arratsalde eguzkitsuan, Urnietako futbol zelaiaren inguruan.

Musika eta dantzaz girotu zuten ekitaldia, eta, urtero bezala, bertan izan ziren **Egape dantza taldea** eta **Buruntzantzan** Urnietako batukada taldea. Batukada koek irteera amaierak animatu eta dantzariak ongi etorria eman zieten jokalariei. Aurten, gainera, berritasun batekin etorri ziren. Izan ere, dantza taldea eta perkusio taldeaz gain, funki dantzez gozatzeko aukera izan zen. Ekitaldiaren amaieran, Buruntzantzan taldeak jotako musika alai eta azkarrak dantzatu zituzten Basteroko Funky talde-

ko Leire Gonzalez, Saioa Urbistondo, Olaia Ruiz, Irati Larrañaga, Mainer Artetxe, Naroa Artetxe, Estitxu Villanueva eta Leire Garciak.

Pablo de Torresek adierazi zuenez, Urnietako eragile ezberdinek ekitaldi berean parte har zezaten saiatu ziren: “Ekitaldi animatua antolatzen saiatzen gara, azkarra, gaztea, dinamikoa eta ordu bete ingurukoa. Eta, funkiak ezaugarri horiek guztiak betetzen dituelako sartu dugu, berritasunen bat izatearren. Horrela, gainera, herriko eragile ezberdinak batera parte hartu dute”. Bestalde, ekital-

dian zehar, elkarrizketak egiteko denbora ere izan zuten. Esaterako, Ibai Garmendia errejional mailako kapitainak hitz egin zuen. Taldean aldaketak izan dituzte, izan ere, **Gorka Pardavila** kapitain izatetik entrenatzaileari laguntzera igaro da: “Entrenatzaile izan aurretik, gurekin urte askotan egon da. Ezagutzen dugu, eta berak gu ere ezagutzen gaitu. Oso denboraldi ona egin dugu, oso lan polita egin dugu berarekin eta gustura gaude.”

Talde gaztea dira, maila txukuna dute eta kapitainak azaldu zuenez, ez dute epe luzera-

ko helbururik jarri. Denboraldia ondo hasi nahi dute, ahalik eta lasterren salbatzeko puntuak lortzeko. Ondoren, gora begira jarri eta ahalik eta partida gehien irabazten saiatuko dira. Gainera, bere lehenengo urtea izango da kapitain bezala. “Ilusioz eta gogoz nago, ahalik eta gehien laguntzeko. Brazaletea eramatea zerbait berezia da, horregatik, gogoz nago”.

Bai bera bai eta gainontzeko guztiak ere irrikaz daude denboraldiari hasiera emateko eta, noski, ahalik eta hobeto egingiten saiatuko dira.



URNIETA KIROL ELKARTEA PREFERENTE MAILAKO TALDEA Ander Estevez, Pablo Santos, Jon Jabat, Jon Ramos, Imanol Andres, Yeray Moreno, Ander Loinaz, Urko Antolin, Iker Ramos, Albert Fuentes, Xuban Ezeiza, Aitor Aramendi, Ander Hernandez, Dennis Torrecilla, Miguel Ramos, Dani Gomez, Ibai Garmendia, David Sierra, Endika Garcia, Xabier Ansa, Aitor Harto. Entrenatzailea: Jon Telletxea. Laguntzaileak: Gorka Pardavila eta Igor Ugalde. Prestaketa fisikoa: Ibai Garmendia.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



KIROL ALBISTEAK

Herri bira Urnietan



Urnietako Herri Bira | 2014.9.14

Sailekpenak

Mutilak

1	Asier Martinez Alvarez	31:17	266	Urniet
2	Javier Perez Moreno	31:26	273	Irun
3	Andoni Olazaguirre Lasuen	32:01	296	Hernani
4	Jon Lorenzo Gaston	32:09	264	Hondarribia
5	Javier Garcia Arnedo	32:24	252	Irun
6	Richard Rivera Arguilea	32:51	277	Lezo
7	Zesar Fernandez Karrero	33:13	248	Lazkao
8	Asier Aranburu S. Pedro	33:22	292	Urretxu
9	Jon Elkano Erriondo	34:22	246	Errenteria
10	Miguel Cobo Fuente	34:26	242	Burlada

Neskak

34	Naiara Casi Presa	38:04	350	Donostia
35	Ana Mª Gonzalez Luis	39:09	256	Errenteria
45	Maialen Zain Vicente	41:01	286	Zarautz
50	Pilar Arriola Diez	42:35	232	Elgoibar
52	Miren Arregi Artola	42:56	298	Hernani

Eskualdeko partaidetza

13	Arkaitz Urdapilleta Irazu	34:41	299	Andoain
15	Ivan Sardon Barbero	34:52	279	Urniet

18	Jon Ramos Gonzalez	35:20	278	Urniet
22	Unai Lizeaga Apaolaza	35:40	260	Urniet
24	Txelu Del Sol Mateos	35:53	244	Urniet
32	Xabier Berrueta Elizegi	37:51	352	Andoain
33	Igor Lizasoain Mugika	37:54	291	Urniet
36	Dioni Agredano Corro	39:15	229	Andoain
41	Iñaki Gomez Ramos	39:55	294	Urniet
43	Periko Juanikorena Erro	40:13	259	Urniet
46	Rodolfo Parra Rodriguez	41:09	269	Andoain
47	Josu Arruarte Zapiain	41:25	353	Urniet
49	Jonathan Lopez Infante	41:41	263	Urniet
51	Diego Barrasa Ruiz	42:51	235	Andoain
53	Javier Fraisoili Arevalo	43:20	250	Urniet
54	Joseba Unanue Arruarte	44:07	283	Urniet
56	Javier Barrientos Sanchez	44:37	236	Urniet
59	Borja Granada Macazaga	45:03	257	Urniet
60	Uxue Mayoiz Etxeberria	45:06	351	Urniet
66	Jose Luis Lopez Augusto	46:49	261	Urniet
68	Maite Begiristain Izeta	48:41	237	Urniet
69	Mikel Paz Amenabar	49:16	270	Andoain
70	Iñigo Guirado Perez	50:38	288	Andoain
71	Marina Alkorta Mugika	50:39	289	Andoain



Martinez lasterketako irabazlea, Uxue Mayoiz herriko lehen emakumearekin batera.



Irabazleak adina txalo jaso zuen Maitek.



Naiara Casi emakumezkoetan garaila.



Igor Lizasoain, Marina Alkorta, Iñigo Guirado, Mikel Paz eta Diego Barrasa.

Leitzaran mendi bizikletan

Leitz MTB taldeak 42 kilometroko bizikleta irteera antolatu du igande honetarako, Etxeberrieta plazatik abiatuko dena. Ibilbide gorabeheratsua izango da, 1300 metroko desnibela pilotuko duena. Andoainen hasi eta bertan bukatuko da. Ibilbide ertaina ere prestatu dute, 25 kilometrokoa.

Ibilbide osoa xehetasun handiz Internet sarean ikusgai dago wikiloc.com gunean "Leitz Aran 2014" izena-

rekin. Ibilbide osoan zehar bolondresak lanean izango dira probaren arauak betetzen direla ziurtatzeko. Kas-koa erabiltzea, noski, ezinbestekoa izango da.

Probaren xehetasunak:

09:00 Etxeberrieta plaza.
Proba nagusia: 42 km.
Proba ertaina: 25 km.
Hamaiketakoa, dutxa eta aparkalekuak.
Izen-ematea:
www.herrikrosa.com

Larramendi txapelketa

Finalean Urnieta 3-2 garaituz, Euskalduna taldeak Larramendi txapelketaren XL. edizioa eskuratu zuen. Partida irekia izan zen, baina azkenean Euskaldunak gol

gehiago sartzen asmatu zuen. Asier Extremera txapelketako onena izendatu zuten. Urnietak eta Euskaldunak asteburuan Ligari ekingo diote, biak talde berean.

Kontsejupekoa, martxan

Benjamin, alebin, infantil eta kadete mailako 30 pilotari Kontsejupekoa jokatzeko ari dira egun hauetan, 16:00etan hasita. UKEtik adierazi dutenez, "Udalak antolatu duen txapelketan ilusio handia nabaritzen da". Argazkian, benjamin eta alebin mailakoak.



Atletismoa, jardunaldi irekiak

Zumeatarrak ikasturtearen hasieran atletismoa ikasleei azaltzeko asmoa du. Horretarako jardunaldi irekiak antolatu dituzte irailaren 26rako. 7 eta 16 urte bitarteko

gazteei erakustaldia antolatu diete irailaren 26rako, Ubirtarten 18:00etan hasita.

Informazioa:

628 068 842 Joxean.
607 634 498 Eva.

Futbol eskola, Euskalduna

Izen-ematea zabalik dago klubeko bulegoan irailaren 17tik 30era, asteazken eta ostirale-

tan 17:00etatik 18:30etara. 2003-2006 urteen artean jaiotakoei zuzenduta.

Spinning eta Zumba gaztea

Saio bat dohainik probatzeko aukera izango dute spinning eta zumba gogoko duten gazteek. Allurralde kiroldegiko eskaintza 1998-2002

urteetan jaiotakoei zuzenduta dago.

Larunbat honetan -irailak 20- proba egiteko aukera izango da, 11:00tan hasita.

Eskubaloitxapelketa

Andoaingo Leizaran eskubaloitxapelketa antolatu dute, larunbat honetarako.

Allurralden eta Arraten jokatuko dira partida guztiak. Taldeen aurkezpena egiteko baliagarria izango da.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Buztina

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izabea Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com
www.aiurri.com
Lege Gordailua: SS-1078/04
ISSN: 1698-4870
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Gaizka Bernardo (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

IRAILAREN 18TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

■ **"El niño"**, Daniel Monzon. 19:30, 22:00.

Irailak 20, larunbata.

19:30.

Irailak 21, igandea.

19:30, 22:00.

Irailak 22, asteartea.

■ **"Como entrenar a tu dragon 2"**, haurrentzat.

Irailak 20, 21. 17:00.

■ **"Baso ahaztuak"**, bideo proiektzioa eta solasaldia.

19:00 Erakusketa gela.

Irailak 25, osteguna.

■ **Andoingo Gudua**, iazko ikuskizunaren bideoa eskainiko dute. DVDa erosteko aukera izango da.

19:00. Ekitaldi aretoa.

Urriak 1, asteazkena.

Solasaldia

Andoain, Liburutegia

■ **"La invención de Morel"**,

Adolfo Bioy Casares.

Ordutegia: 19:00-20:30.

Irailak 30, asteartea.

Ikastaroak

Andoain

■ **Euskarazko hastapen ikastaroak** guraso, aiton-amon edota zaintzaileentzat ikaste-txectan bertan. Informazio gehiago: Udaletxea, AEK.

■ **Jabetze eskola: Feminismoa.** Gizartean eztabaida sortzen ari diren gaiekin harremanetan jarri nahi duten emakumei zuzenduta dago.

Urriak, asteartea.

18:30-20:30. Urigain.

Matrikula: 10 euro. Ataria.

Epea: Irailak 30.

■ **Urnietan, Sarobe**

■ Saroben yoga edo pilates helduentzat. Dantza, balleta edo funky gazteentzat.

Izen-ematea, epea: irailak 19.

■ **"Autoconocimiento para el cambio"**, Pepa Bojo.

Izen-ematea: Bertan.

Urriak 10-azaroak 21.

Dantza

Urnietan

■ Egape dantza taldeko kideek "In-Fusioak" dantza ikuskizuna eskainiko dute.

20:00. Sarobe.

Irailak 19, ostirala.

Deialdia

Andoain

■ **Lagunak futbol taldeko kideen bilkura.** Iraganen futbol txapelketa ugariz gain ospe handia lortu zuen Lagunak futbol taldeko kideak bazkari batean bilduko dira.

Bazkaria Ontzan:

Irailak 20, larunbata.

Sanmielak

Urnietan

■ **Jaien hasiera**

19:00 Txupinazoa.

Irailak 25, osteguna.

■ **Iñistor jaia** irailaren 29an.

Omenaldia bazkalostean

Edu Muruamendiarazi.

Bazkarirako txartelak salgai, ohiko tokietan.

■ **Jubilatuaren bazkaria** irailaren 29an Oianumen.

Agertu nahi duen urnietarrak, elkarteko kuota ordainduta

duela aurkezteaz gain, 12 euroko ordainketa egin behar du.

Ludoteka

Karrika, Andoain

■ **Karrikako Udal ludoteka.** Izena emateko epea irekia. Urte osokoa, 30 euro. Urritik hasita, egunero irekia. "Larunbatean euskaraz" egitasmoa, eta urte osoan zehar tailerrak, irteerak eta jolas-tuz lagunak egiteko aukera.

943 592 181.

Txalaparta

Andoain

■ Izena emateko epea irekia.

maizorri@gmail.com.

664 807 845 (arratsez).

Gazteak

Urnietan

■ **Gaztelekua** zabalik.

Astehenetik ostiralera.

17:00-20:00.

■ **Irailako jarduerak:**

Gazte Forum bideoa

Irailak 18, osteguna.

Eskulanak

Irailak 23, asteartea.

Futbolin txapelketa

Irailak 24, asteazkena.

Mural kolektiboa

Irailak 25, osteguna.

Andoain

■ **Gazte lokala** zabalik.

Asteazkenetik igandera.

17:00-20:30.

Lehiaketa

Urnietan

■ **Pintura lehiaketaren XVII. edizioa.** Deialdia irekia da, doakoa. Gaia librekoa izango da. Nolanahi ere, ezinbesteko baldintza izango da Urnietako herrian girotua izatea.

Oinarriak: urnieta.org.

Irailak 21, larunbata.

Antzerkia

Urnietan, Sarobe

■ **"Barealdi magikoa"**, Ttanta-ta teatro taldearen ikuskitze berria.

20:00. Sarrera: 3,5 euro.

Irailak 26, ostirala.

Musika

Andoain, Gaztetxea

■ **Musika zuzenean webgunearen aldeko kontzertua:** Willis Drummond, Borrokan, Tutan come on. DJak.

22:00. Gaztetxea. 7 euro.

Irailak 27, larunbata.


Urnietan

■ **Kontzertuak** jaietan: Kaotiko, Glaukoma, Los zopilotes txirriak, herriko taldeak,...

Irailak 26-28.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Jokin bi urte egin dituzu. Ondo pasa eta muxu potolo bat amona eta aitona aldetik.

URNIETA

ZORIONAK



Naia kurriaren 7an 3 urte beteko ditu. Piilo bat maite zaitugu. Gurasoak eta anaia. Etxekoak.

URNIETA

ZORIONAK



Oihane irailaren 22an 10 urte. Zorionak guraso eta arre-baren partetik. Ondo pasa!

URNIETA

Aiurri ZORION AGURRAK diseinua@aiurri.com



Alonso eta talde osoaren asteburua, bikaina

Asteburua eta denboraldi amaiera ikusgarria izan da **Andoingo Txirridulari Eskolako** jubententzat. Mikel Alonso ibili da lehen postuetan, eta taldeak laguntza handia eman dio. Irailaren 13an Larratxon egin zuten lasterketan Andoingo taldea goitik behera nagusitu zen. Mikel Alonso izan zen garailea eta mendiko sailkapena eskuratu zuena. Taldeko sailkapena ere irabazi zuten.

Biharamunean, taldeko ibarrak lasterketan bigarren indar erakustaldia egin zuten 24 orduko

epean. Taldea oso ondo aritu zen lasterketa kontrolpean izaten. Lasterketa Altxoko igoeran apurto eta Leaburuko igoeran erabaki zen. Mikel Alonso hirugarren sailkatu zen, udazkeneko Kriteriumeko lehen postua ziurtatuz. Zorionak Alonsori eta talde osoari!

URRIAREN 4AN OLLOKIRA

Denboraldia amaitu da eta eskolak ohiko duenez, azken irteera lagun taldean egite dute. Urriaren 4an 10:00etan Olloki aldera abiatuko dira.



Astearte iluntzeko mahai-inguruaren kronika aiurri.com gunean irakurgai dago.